



PENTSIO SISTEMA PUBLIKOA ABUZTUAREN 1eko 27/2011 LEGEAREN ERAGINA




GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE EMPLEO
Y SEGURIDAD SOCIAL

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA



Argitaratzailea
Itsasoko Gizarte Institutua

Diseinua eta gauzatzea
Estudio Fraile de Tejada

NIPO: 273-12-029-0
Lege-gordailua: M 41351-2012

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debebatuta dago liburuxka hau osorik edo partzialki, zein bere argazkiak edota irudiak, erreproduzitzea edo baliabide elektroniko edo mekanikoak erabiliz transmititzea Itsasoko Gizarte Institutuaren idatzizko baimenik gabe. Liburuxka honen informazio guztia indarrean dagoen Jabetza Intelektualaren Legearen babesean dago.

Aurkezpena

Oso pozgarria da liburuxka hau aurkeztea, Gizarte Segurantza sistemaren eguneratze, egokitze eta modernizazioaren gaineko abuztuaren 1eko 27/2011 Legeak babes sozialaren alorrean dakartzan oinarritzko berrikuntzak azpimarratzea helburu duena. Arau honek garrantzia berezia du Gizarte Segurantzaren Lege Orokorren Testu Bateginaren hainbat manu aldatzen baitu eta, aldi berean, legezko testu honi xedapen berriak gehitzen baitizkio; beraz, Gizarte Segurantzaren prestazio batzuen araubide juridikoari berrikuntza garrantzitsuak gehitzen dizkio.

Liburuxka honen zabalkundeko izaera dela eta, legezko manu zehatzak aipatzea ekiditu da; nahiz eta arauaren analisi tekniko edo zientifiko batean manu haiek aipatzea derrigorrezkoa izan, hau bezalako zabalkundeko argitalpen batean ez ezinbestekotzat jo dugu. Halere, gaiaren zorrozatasuna eta azalpen argitasuna konbinatzea da helburua, hurrengo orrialdeak irakurri ondoren, Legeak araututako oinarritzko aspektuei buruzko informazio laburra baina argia izateko asmoz.

Ez da beharrezkoa aipatzea, azalpenak edo informazio gehigarria behar izanez gero, gurekin harremanetan jar zaitezkeela Itsasoko Gizarte Institutuan, Probintziako nahiz Tokiko Zuzendaritza sarearen bidez. Bertan arreta emateko prest egongo gara.

Sarrera	5
Aldaketak erretiroari dagokionean	6
■ Zein talderi jarraituko zaio aplikatzen indarrean dagoen araudia, jarri aurretik indarrean dagoen araudia?	6
■ Erretiro motak	6
■ Zer aldatzen du lege berriak?	6
■ Erretiratzeko adin arrunta edo legezkoa	7
■ Erretiroaren oinarri arautzailea kalkulatzea	8
■ Pentsioaren zenbatekoa portzentaiaren arabera	9
■ Lan-bizitza luzatzeko pizgarriak	10
■ Kotizazio hutsuneak integratzea	10
■ Pentsioaren eta lanaren arteko bateragarritasuna	10
Aldaketak Ezintasun Iraunkorrari dagokionean	11
Aldaketak Heriotza eta Biziraupenari dagokionean zurztasun pentsioari lotuta	12
Erreformatzen beste aspektu batzuk	13
■ Kotizatze betebeharren salbuespen partziala (2. artikulua)	13
■ Onurak seme-alabak zaintzeagatik	14
■ Gutxieneko pentsioa baino txikiagoak diren pentsioentzako osagarria	14

Gizarte Segurantzaren sistemaren eguneratze, egokitze eta modernizazioaren inguruko abuztuaren 1eko 27/2011 Legearen helburua hau da: 2011ko otsailaren 2an gizarte solaskideek eta Gobernuak izenpetutako "Hazkunderako, enplegurako eta pentsioen bermerako akordio sozial eta ekonomikoa" dokumentuak jasotzen dituen konpromisoak antolamendu juridikora eramatea da; hain zuzen ere, "pentsioen sistema publikoa erreformatzeko eta indartzeko akordioa" atalari dagokionean, honen barruan hainbat konpromiso dagoelarik.

Ildo honetatik, Legeak Toledoko itunaren berradierazpenak jasotako argibideak jarraitzen ditu, 2011ko urtarrilaren 25ean Gorte Nagusiek Ebaluazio eta Erreforma Txostena onartu ondoren indarrean jarri zena.

Indarrean jartzeko datari dagokionean, 27/2011 Legea B.O.E.-an 2011ko abuztuaren 2an argitaratu zen, baina legearen zati garrantzitsu bat (batez ere, erretiro pentsioari dagokiona) 2013ko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko da; honen ondorioz, oinarritzko neurri batzuk pausoka ezarriko dira data honetatik 2027 arte.

Bereziki garrantzitsuak dira erretiro pentsioari lotutako aldaketa arautzaileak (adina, oinarri arautzailearen kalkulua, pentsioaren zenbatekoa kalkulatzeko honi lotutako portzentaia berriak, lan bizitzaren luzapenerako portzentaia aldaketa, etab.). Hauek guztiak kontuan hartu behar izango dira liburuxka honetan zehar, eta Legeak Gizarte Segurantzaren harreman juridikoaren esparruan egindako beste aldaketa guztiak ere bai.

ALDAKETAK ERRETIROARI DAGOKIONEAN

■ ZEIN TALDERI JARRAITUKO ZAIO APLIKATZEN INDARREAN DAGOEN ARAUDIA, LEGE BERRIA INDARREAN JARRI AURRETIK?

Lan harremana 2011ko abuztuaren 2a baino lehen amaitu duten pertsonen.

Lan harremana 2011ko abuztuaren 2a baino lehen emandako hitzarmen kolektiboak, enpresa akordioak edota aprobatutako edo indarrean jarritako lehiaketa jardunbideetan hartutako erabakiak edota enplegu-erregulazioko espedienteak direla-eta amaitu duten pertsonen, lan harremanaren amaiera 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen edo beranduago eman bada ere.

Erretiro-pentsio partziala 2011ko abuztuaren 2a baino lehen onartu duten pertsonen, eta data hori baino lehen erretiro-plan partzialei gehitutako pertsonen, sarbide hori 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen edo beranduago eman bada ere.

■ ERRETIRO MOTAK

■ Zein erretiro motak mantenduko dira?

- > 60 edo 55 urterekin erretiratzea. Mutualista gisa kotizatu zutenentzat.
- > 61 urterekin erretiro partziala (55 edo 60 mutualista zenarentzat). Errelebo-kontratuarekin.

■ **Zein erretiro mota desagertuko da?** 2013ko urtarrilaren 1etik hasita, 64 urteko erretiro berezia desagertuko da, 1194/85 Errege Dekretuan enplegua sustatzeko neurri gisa jaso.

■ ZER ALDATZEN DU LEGE BERRIAK?

■ **Erretiratzeiko adin arrunta.** 65 urtetik 67 urtera pasako da. Halere, gutxienez 38 urte eta 6 hilabete kotizatu dutela egiaztatzen dutenentzat, 65 urteko erretiroa mantenduko da.

■ **Kotizatutako urteak.** 35 urtetik 37 urtera pasatuko da.

■ **Oinarri arautzailea.** 15 urtetik 25 urtera pasatuko da.

■ **Pentsioaren zenbatekoa.** Tarte portzental berriak kotizatutako urteen arabera.

■ ERRETIRATZEKO ADIN ARRUNTA EDO LEGEZKOA

Sarbide baldintza den adina aldatuko da: 2027tik aurrera, derrigorrezkoa izango da 67 urte izatea edo, 38 urte eta 6 hilabete kotizatu izanez gero, 65 urte izatea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera, hots, Legea indarrean sartzen den data, eta 15 urtetan zehar, pentsio hau jasotzeko adin-baldintza eta 65 urtekin erretiratzeiko beharrezko kotizazio-aldiak (osorik hartuko dira, urte edo hilabete zatiek urte edo hilabete osoak sortu gabe) gradualki aplikatuko dira honela:

Urtea	Kotizatutako epea	Beharrezko adina
2013	35 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	35 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta hilabete 1.
2014	35 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	35 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 2 hilabete.
2015	35 urte eta 9 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	35 urte eta 9 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 3 hilabete.
2016	36 urte edo gehiago.	65 urte.
	36 urte baino gutxiago.	65 urte eta 4 hilabete.
2017	36 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	36 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 5 hilabete.
2018	36 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	36 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 6 hilabete.
2019	36 urte eta 9 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	36 urte eta 9 hilabete baino gutxiago.	65 urte eta 8 hilabete.
2020	37 urte edo gehiago.	65 urte.
	37 urte baino gutxiago.	65 urte eta 10 hilabete.
2021	37 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	37 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	66 urte.
2022	37 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	37 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 2 hilabete.

2023	37 urte eta 9 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	37 urte eta 9 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 4 hilabete.
2024	38 urte edo gehiago.	65 urte.
	38 urte baino gutxiago.	66 urte eta 6 hilabete.
2025	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 8 hilabete.
2026	38 urte eta 3 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	38 urte eta 3 hilabete baino gutxiago.	66 urte eta 10 hilabete.
2027tik aurrera	38 urte eta 6 hilabete edo gehiago.	65 urte.
	38 urte eta 6 hilabete baino gutxiago.	67 urte.

Beraz, 2013tik 2027ra arteko aplikazio gradualak hurrengo eragingo du:

- > **Kotizatutako aldiei** dagokienez, 35 urtetatik 38 urte eta 6 hilabetetara pasako dira. (35 urtetatik hasita, 2013 eta 2017 artean urtero 3 hilabete gehiago gehitzen da, 2026an izan ezik, 2025eko denbora bera mantentzen baita).
- > **Erretiratzeko beharrezko adinari** dagokionez, 65 urtetik 67 urtera pasako da. (2013tik 2018 arte urtero hilabete bat gehituz eta 2019 eta 2027 artean urtero hilabete bat gehiago gehituz burutuko da).

■ ERRETIROAREN OINARRI ARAUTZAILEA KALKULATZEA

Pentsioaren oinarri arautzailearen kalkulatzeko aldia 15 urtetik 25 urtera pasatuko delarik, luzatze hau pausoka emango da. Gehikuntza hau urtero gauzatuko da 2013tik 2022 arte, hurrengo taulari jarraiki (pentsioaren oinarri arautzailea erretiroaren aurreko hilaren aurretik igarotako "x" hilabeteen kotizazio oinarrien batura zati hilabete kopurua eginez lortutako zatidura dela kontuan hartuta):

2013 urtean zehar	192 hilabete (16 urte) / 224
2014 urtean zehar	204 hilabete (17 urte) / 238
2015 urtean zehar	216 hilabete (18 urte) / 252
2016 urtean zehar	228 hilabete (19 urte) / 266

2017 urtean zehar	240 hilabete (20 urte) / 280
2018 urtean zehar	252 hilabete (21 urte) / 294
2019 urtean zehar	264 hilabete (22 urte) / 308
2020 urtean zehar	276 hilabete (23 urte) / 322
2021 urtean zehar	288 hilabete (24 urte) / 336
2022tik aurrera	300 hilabete (25 urte) / 350

Ez-borondatezko uztearen kasuan, suposizio berezi bat dago:

- > Lana borondatez utzi ez dutenentzat eta, behin 55 urte izanik eta gutxienez hogeita lau hiletan zehar, kotizazio oinarrien murrizketa bat jasan dutenentzat lan-harremanaren uztea eman aurretik egiaztatuarekin konparatuta.
- > Autonomoentzat, jarduera amaierako laguntzaren agorpenaren datatik urtebete igaro bada eta betiere amaiera hori 55 urte izanik eman bada.

Kasu hauetan, oinarri arautzailea kalkulatzeko kontuan hartu beharreko aldiak hurrengoak izango dira, arau orokorrari dagokiona baino onuragarriagoa bada:

- > **2013tik 2016 arte;** 240 hilabete (20 urte) arau orokor iragankorra baino onuragarriagoa bada.
- > **2017tik 2021 arte;** 300 hilabete (25 urte) arau orokor iragankorra baino onuragarriagoa bada.
- > **2022tik aurrera;** 300 hilabete (25 urte).


■ PENTSIOAREN ZENBATEKOA PORTZENTAIAREN ARABERA

Pentsioa lortzeko oinarri arautzaileari aplikatutako portzentaia aldatzen da %50etik, kotizatutako 15 urterekin, %100era, kotizatutako 37 urterekin. Egungo eskalatik eskala berrirako aldaketa pausoka emango da 2013 eta 2027 artean:

2013tik 2019arte	1. eta 163. hilabeteen arteko kotizazio hilabete gehigarri bakoitzeko %0,21, eta hurrengo 83 hilabeteengatik %0,19.
2020tik 2022arte	1. eta 106. hilabeteen arteko kotizazio hilabete gehigarri bakoitzeko %0,21, eta hurrengo 146 hilabeteengatik %0,19.
2023tik 2026ra	1. eta 49. hilabeteen arteko kotizazio hilabete gehigarri bakoitzeko %0,21, eta hurrengo 209 hilabeteengatik %0,19.
2027tik aurrera	1. eta 248. hilabeteen arteko kotizazio hilabete gehigarri bakoitzeko %0,19, eta hurrengo 16 hilabeteengatik %0,18.

■ LAN-BITZA LUZATZEKO PIZGARRIAK

65 edo 67 urte baino gehiago izanda erretiratzen diren pertsonen, kasu bakoitzari aplikatutako baldintzak betetzen direnean, adin hori betetako urtearen eta erretiroaren urtearen artean igarotako urte oso bakoitzeko portzentaia gehigarri bat jasoko dute; honen zenbatekoa kotizatutako urte kopuruaren arabera kalkulatu da, hurrengo eskalari jarraiki:



Kasu hauetan guztietan erretiro pentsioa jasotzeko aurrebaldintza mantentzen da: gutxienez 15 urte kotizatu izana, eta haietatik 2 pentsioaren hasiera aurreko 15 urteetan eman izana.

■ KOTIZAZIO HUTSUNEAK INTEGRATZEA

Oinarri arautzailea kalkulatzeko hartu beharreko aldiak kotizatutako obligaziorik ez dagoen hilabeterik balego, lehen berrogeita zortzi hilekoak momentu bakoitzean emandako oinarri guztien arteko oinarri minimoarekin integratuko dira, eta beste hileko guztiak oinarri minimo horren %50ekin.

■ PENTSIOAREN ETA LANAREN ARTEKO BATERAGARRITASUNA

Erretiro pentsioa jasotzea norbere kontura egindako lanekin bateragarria izango da, lan horien urteko diru-sarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez badu urteko kopuruan. Jarduera hauek burutzen dituztenek ez dute Gizarte Segurantzaren kotizatutako beharra izango.

ALDAKETAK EZINTASUN IRAUNKORRARI DAGOKIONEAN



> 65 urteko adina ezintasun iraunkorrari laguntza jasotzeko muga gisa ezartzen duen erreferentzia hurrengo adierazpenarekin ordezkatu da: "... momentu bakoitzean indarrean dagoen erretiro adin arrunta".

> Kotizazio hutsuneak integratzeko metodo berria: oinarri arautzailea kalkulatzeko hartu beharreko aldiak kotizatutako obligaziorik ez dagoen hilabeterik balego, lehen berrogeita zortzi hilekoak momentu bakoitzean emandako oinarri guztien arteko oinarri minimoarekin integratuko dira, eta beste hileko guztiak oinarri minimo horren %50ekin.



> Ezintasun Iraunkor Osoaren kasuan, pertsonaren lanbidean edo honen lanbide-taldean, biziarteko pentsioa enpresa berak edo beste batek langileari eman diezaiokeen soldatarekin bateragarria izango da, betiere langilearen zeregina ezintasun iraunkor osoa eragin zuena ez bada.

> Ezintasun iraunkor absolutuaren eta baliaezintasun handiaren pentsioa jasotzeko berariazko debekua erretiro pentsioa jasotzeko adinaren ondoren, pentsioaren onuradunak ezin izango baitu lanik egin, norbere kontura zein besteren kontura, Gizarte Segurantzaren erregimenen batean izanik.



ALDAKETAK HERIOTZA ETA BIZIRAUPENARI DAGOKIONEAN ZURZTASUN PENTSIOARI LOTUTA

Zurztasun pentsioaren onuradun izateko baldintza aldatzen da. Hurrengo eskatzen da:

- > Arau orokor gisa, 21 urte baino gutxiago izatea.
- > Umezurtzak irabazizko lanik egiten ez badu, norbere kontura zein besteren kontura, edo, lan egiten badu, urteko diru-sarrerak indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldata gainditzen ez badu urteko kopuruan:
 - ⇒ Zurztasun absolutuaren kasuan, 25 urte baino gutxiago izatea.
 - ⇒ Zurztasun sinplearen kasuan:




ERREFORMAREN BESTE ASPEKTU BATZUK

■ KOTIZATZEKO BETEBEHARRAREN SALBUESPEN PARTZIALA (2. artikulua)

GSLO 122 bis artikulua aldaketa.

Lehen: 65 urte edo gehiago duten eta 35 urte baino gehiago kotizatu duten langileentzat.

Orain: enpresariak eta langileak ez dute Gizarte Segurantzaren kotizatze betebeharra izango gertakizun arruntak direla eta soilik, aldi baterako ezintasuna salbu, kontratu mugagabeekin besteren kontura lan egiten duten langileekin alderatuz, edota kooperatibetako bazkidegai edo langileekin, hurrengo bi kasuetan:



Aurreikuspen hau mantentzen da: aipatutako adinen bat betetzean langileak kasu bakoitzean beharrezko kotizazio urte kopurua ez badauka, salbuespena kotizazio urte kopuru hori lortzen den datatik aurrera aplikatuko da.

Era berean, norbere kontura lan egiten duten langileentzako baldintza berriak egokitzen dira.

Bukatzeko, Xedapen gehigarri bat sartzen da: 2013ko urtarrilaren 1 baino lehenagoko langileen kuota-salbuespen aldiak dituzten eta data horretatik aurrera erretiro pentsioa jasotzeko eskubidea lortzen duten pertsonen erretiro pentsioari dagokion kalkuluari dagokionean, salbuespen horiek emandako aldia kotizazio-epetzat hartuko da dagokion pentsioa kalkulatzeko orduan.

■ ONURAK SEME-ALABAK ZAINTEAGATIK

Edozein kasutan, beharrezko kotizazio epe minimoa betetzeko salbu, kotizazio-epetzat hartuko da kotizazioaren etenari dagokion epea, lan harremanaren amaieraren ondorio, hau jaiotzaren aurreko bederatzi hilen, edo adopzio edota harrera iraunkorraren aurreko hiru hilen eta egoera horren ondoko seigarren urtearen amaieraren artean ematen bada.

Kotizazio-epearen kalkuluaren iraupena seme-alaba bakoitzeko edo adoptatutako edo hartutako haur bakoitzeko 112 egunekoa izango da. Epe hau urtez-urte handituko da, 2013tik aurrera eta 2018 arte, 2019an seme-alaba bakoitzeko gehienez 270 egunekoa izan arte; kopuru hau ezin izango da inoiz kotizazioaren eten errearen iraupena baino handiagoa izan.

Onura hau gurasoetarik bati emango zaio, eta haien artean ados ez badaude, amari emango zaio.

Erretiro pentsioak, ezintasun iraunkorreko pentsioak, heriotza eta biziraupenaren pentsioak eta amatasun eta aitatasunaren pentsioak kalkulatzeko, kotizatutzat hartuko da langileek jaiotza, adopzio, harrera iraunkor edo adopzio aurreko harreraren kasuetan seme-alaba bakoitzeko gozatutako 3 urteko eszedentzia.

5 urteko muga onuradun bakoitzeko.


■ GUTXIENKO PENTSIOA BAINO TXIKIAGOAK DIREN PENTSIOENTZAKO OSAGARRIA

Araubide juridikoa honela aldatzen da:

> **Eskatuko da**, gertaera eragilea 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera ematen bada, pertsonarentzako baldintza gisa lurralde espainiarrean bizitzea.

> **Zenbatekoa mugatuko da**; honela, 2013ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatutako pentsioen kasuan, haien zenbatekoa ez da inoiz momentu bakoitzean indarrean dagoen laguntza mailako erretiro edota ezintasun pentsioa baino handiagoa izango, hurrengo salbuespenekin: onuradunaren zaintzaileari zuzendutako diru-laguntza gehigarria duten ezintasun handiko pentsioak eta alargun-pentsioaren zenbatekoari gehitutako zuztasun pentsioak.

Probintzia Zuzendaritza	Helbidea	Posta-kodea	Telefonoa
Alikante	Acceso Muelles de Poniente, 2	03001	965 126 523
Almeria	Muelle Puerto Pesquero	04002	950 620 211
Asturias - Gijón	Avda. Príncipe de Asturias, 76	33212	985 327 200
Bartzelona	Albareda, 1	08004	934 439 600
Bizkaia - Bilbo	Begoñako Andra Maria kalea, 32	48006	944 739 000
Cádiz	Avda. de Vigo, s/n	11006	956 257 615
Kantabria - Santander	Avda. de Sotileza, 8	39009	942 214 626
Castelló - Grao	Plaza Miguel Peris y Segarra, s/n	12100	964 283 720
Ceuta	Avda. Muelle Cañonero Dato, 20	51001	956 500 240
Coruña, A	Ramón y Cajal, 2	15006	881 909 800
Gipuzkoa - Pasaia	Marinos, 1	20110	943 404 000
Huelva	Avda. Hispanoamérica, 9	21001	959 257 411
Balear Uharteak - Palma de Mallorca	Moll Vell, 15	07012	971 725 606
Las Palmas	León y Castillo, 322	35007	928 494 645
Lugo	Ronda Múxico Xosé Castiñeiras, 10 Bajo	27002	982 225 010
Madril	Churruca, 2	28004	915 919 900
Málaga	Puente del Carmen, s/n	29002	952 359 361
Melilla	Avda. de la Marina Española, 7	52001	952 678 800
Murtzia - Cartagena	Muelle de Alfonso XII, s/n	30202	968 502 050
Santa Cruz de Tenerife	Avda. de Anaga, s/n	38001	922 598 900
Sevilla	Fernando IV, 1	41011	954 286 028
Tarragona	Francisco Bastos, 19	43005	977 191 000
Valentzia	Avda. del Puerto, 300	46024	963 359 900
Vigo	Avda. Orillamar, 51	36202	986 216 100
Vilagarcía de Arousa	Avda. de la Marina, 23	36600	986 568 300



Gizarte Segurantzaren webgunean,
www.seg-social.es,
zure kontsulta eta iradokizunak
emateko buzoi bat aurkituko duzu.

Era berean, zure pentsioari lotutako izapideak eta
kudeaketak Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa
erabiliz burutzeko aukera duzu:
<https://sede.seg-social.gob.es>



@dministración
electrónica

